



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

72. zenbakia

2020ko otsailak 6 – 19

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

2019ko Txillardegui-Hausnartu Soziolinguistika Sarien artikuluak BAT 113 aldizkarian

Argitaratu berri da BAT soziolinguistika aldizkariaren 113 zenbakia, 2019ko Txillardegui-Hausnartu lehiaketan sarituriko lanekin osatutako monografikoa.. Bertan irakurriko dituzue honako lan irabazleak:1. saria. Miguel Galicia Lambarri: "Ebaluazioa: euskararen alde..."

Ikerketak

Gipuzkoako barne-produktu gordinaren % 5,34 dago euskararekin lotuta, eta EAEko % 4,59

(Langune) Sektore produktibo gisa euskarak termino ekonomikoetan duen balioa kuantifikatu du Langunek, lurraldeko ekonomian zer pisu duen jakiteko. Gipuzkoan euskarak duen eragin ekonomikoa eta hizkuntzen industriak EAEn duen egoera aztertu dituen txostenaren emaitza...

Ikasleen arteko hizkuntza-erabilera, identitatea eta hizkuntzen arteko jauziak aztertu ditu DREAM taldeko Eider Saraguetak

(Unibertsitatea.net) Bizkaiko herri bateko D ereduko eskola bateko ikasgela baten jarraipena egin du horretarako. Ikasleak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan zeudenean egin zuen azterketa. Hauek beraien artean euskara nola erabiltzen zuten ezagutu nahi zuen. Baita ...

Nafarroan, 15 urte edo gehiagokoen %27,9k dute euskararen ezagutza

(Berria) 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean %40ra igo da euskaraz zerbait dakitenean kopurua. Estatistika Institutuaren datuen arabera, euskaraz dakiten gazteek atzerriko hizkuntzen ezagutza handiagoa dute.

Tolosaldea eskualdeko euskaltzaleak ahalduentzeko proiektuaren laburpena

(Galtzaundi) 2019an zehar Ahalduentze lurak ereiten: euskaldunak ahalduentzeko proposamenaren gakoak, Tolosaldean proiektua landu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Formazio saioak, prestakuntza tailerrak, herriz herriko lanketa... horren fase adierazgarriena eskualdeko h...

Aiztondo bailarako bertsolaritza ikertzeko beka

(Mintzola) 3.000 euroko dirulaguntza lortu ahal izango du ikertzaileak proposatutako ikerlana garatzeko, Kilometroen eta Mintzola Ahozko Lantegiaren eskutik. Pello Mari Otaño bekarako proiektuak apirilaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Asteazkenean hasiko da Zumaian 'Euskara, bestela ez gara' hitzaldi zikloa

(Sustatu) 'Euskara, bestela ez gara' hitzaldi zikloak beste edizio bat izango du Zumaian 2020 honetan. Zikloko hitzaldi guztiak asteazkenetan izango dira, arratsaldeko 18:30ean, Alondegian. Maddi Sarasuaren 'Euskara klase perspektibatik' hitzaldiak emango dio...

Linguistic & Cultural (Super)Diversity at Work. From theory and policy to action and (digital) practices

(European Civil Society Platform for Multilingualism) The 2020 ECSPM Symposium is hosted, sponsored and co-organised by the BABYLON CENTRE FOR THE STUDY OF SUPERDIVERSITY, School of Humanities and Digital Sciences, Tilburg University, in the Netherlands.

Jornades XC Propostes de comunicació

(Xarxa CRUSCAT) Els propers 30 de juny i 1 de juliol tindran lloc les V Jornades «La recerca sociolingüística en l'àmbit de la llengua catalana». Com sabeu, amb aquesta trobada d'investigadors la Xarxa CRUSCAT de l'IEC té com a objectiu nuclear visualitza...

Liburuak eta artikulu zientifikoak

UEUren liburugintza deialdia 2020

(UEU) Deialdi honen xedea euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea da. Deialdi honetara euskarazko unibertsitate-liburuak aurkez daitezke, liburu amaituak, euskaraz sorturikoak nahiz euskaratuak (euskaraz sorturikoek izango dute lehentasuna).

Chronotopic Identity Work. Sociolinguistic Analyses of Cultural and Linguistic Phenomena in Time and Space

(Multilingual Matters) The concept of chronotopicity is increasingly used in sociolinguistic theorizing as a new way of looking at context and scale in studies of language, culture and identity. This volume brings together empirical work that puts flesh on the bones ...

Presència social de les llengües a Andorra (1995-2014) – Joaquim Torres Pla

(Revista Llengua i Dret) Aquest apunt sintetitza els principals resultats i conclusions de l'article "Presència social de les llengües a Andorra (1995-2014)", publicat al número 72 de la Revista de Llengua i Dret.

How Language, Religion and Society are Interconnected

(Multilingual Matters) New book addresses the question 'What role does religion play in the maintenance, revival and/or shift, of languages?'. We recently published Language Maintenance, Revival and Shift in the Sociology of Religion edited by Rajeshwari Vijay Pand...

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Indeus EAEko industriaren euskal plataformak 2020rako egitekoak zehaztu ditu

(Sustatu.eus) Euskal Autonomia Erkidegoko industria arloan euskararen presentzia areagotzeko helburuz antolatu den lantaldea da Indeus, Industriaren Euskal Plataforma, SPRI Enpresen Garapenerako Agentziak bultzatua eratu dena.

Joxe Mari Auzmendi pedagogo eta euskaltzalea hil da

(Sustatu.eus) Joxe Mari Auzmendi (Azkarate, 1954), Hik Hasi aldizkariaren sortzailea eta euskarazko pedagogiaren erreferente honen arima izan dena, gaur hil da.

Maialen Sobrino (Garabide): "Munduan ez daude hainbeste biziberritze estrategia euskararen parekoak"

(Hamaika Telebista) Hizkuntza gutxituak izan ditugu hizpide Maialen Sobrino Garabide elkarteko kidearekin. Azpimarratu du mundu osoko hizkuntza gutxituek opresio komuna jasaten dutela. "Naturalizat dugu hizkuntza gutxituak hil egiten direla, baina ez da horrela: hizk...



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala